

Bezeroekiko harremanak

Gure bezeroekiko izango dugun harremana guztiz pertsonala eta aurrez aurrekoa izango da, gure produktuak pertsonalizazio handia eskatzen baitu.

Arrazoi hau dela medio, hasiera batean, gure bezeroarekin modu pertsonalean geratuko gara, hark behar dituen neurri espezifikoak zehazteko. Horrela, gure produktua bere beharretara egokitu ahal izango da.

Printzipioz, gure merkatuan ez dago inolako lehiakiderik, beraz, gure bezeroak ez du gure produktuarekiko leialtasuna galduko. Dena den, lehiakide berriak agertuko balira, gure bezeroa gurekin jarraitzeko harreman pertsonal eta zuzenaz baliatuko ginateke, bezeroa entzuna sentitzeko, eta bere beharrak ahalik eta hoberen ase direla ohartzeko.

Azkenik, gure bezeroek produktuarekin izandako esperientzia jasoko dugu, eta gure YouTube-ko kanalean erakutsiko dugu, bezero potentzialak ikus dezaten.